

## Baietz gurean! esan dute 14 enpresek

- Martxa ona hartu du Baietz Gurean! proiektuak eta bide batez baita Buruntzaldeko lantokietan euskararen presentziak ere. 45 enpresekin jarri dira jada harremanetan proiektua kudeatzen duten aholkulariak eta 14k baiezkoa eman diote proiektuari. 12 enpresetara jada bisitak eginak dituzte eta honela enpresaren egoera linguistikoaren argazkia aterata geratu da. Hobetzeko proposamenak ere egiten ari dira, eta Udalarekin hitzarmenak sinatzea faltako litzateke bakarrik (irailean). Hortik aurrera, enpresa bakoitzak urtebeteko epea izango du hobekuntzak egiteko, eta aurrerapausoak emanaz gero Udalen diru laguntza jasoko lukete. Beste 9k jada euskara plan bat dute abian, eta horietako bik aztertu nahi dute aurrera begira biak nola uztartu. Beste 9k, berriz, udazkenean edota 2012an berriro deitzeko eskaera egin dute. Azkenik, 14 enpresa daude oraindik proiektuari zer erantzun aztertzen ari direnak.
- 2011n enpresek emandako erantzuna ikusita, Buruntzaldeko Udalek proiektuarekin aurrera jarraituko dute 2012an ere. Udazkenerako geratu diren bisitez gain, enpresa gehiagori ere eskaintza egitea izango da erronketako bat.

- Albistea ikusi nahi baduzu sakatu [hemen](#)



## I ngelesa maldan behera negozioetan?

- Guztiek ingelesa hitz egingo balute hobeto ulertuko lukete elkar eta, beraz, pertsonen arteko harremanak eta harreman ekonomikoak maila gorenera igoko lirakeke, ezta? **Bada, ez.** Datu berrien arabera, inbertsioak langile eleanitzengan egin dituzten enpresek, ingelesa soilik hitz egiten duten langileak dituzten enpresek baino emaitza hobekak lortu dituzte beren kanpo-negozioetan.
- Suedian burutu duten azken azterketa batek dioenez, enpresen hizkuntza-politiken eta esportazioetan duten arrakastaren artean kausa-efektu harremana dago. Negozio-sektore berberetan lan egiten duten enpresa suediar, alemaniar eta frantsesengan jartzen badugu arreta, aipatu azterketak adierazten du hainbat hizkuntza hitz egiteko gai diren langileengan inbertsioa egin duten enpresa alemaniarrek, negozioen komunikaziorako giltzarri bakar gisa ingelesa hartu duten enpresa suediarrek baino emaitza hobekak lortu dituztela.
- Informazio gehiago [hemen](#)



## I dazlagun: euskaraz idatzi behar dutenen laguna

- IDAZLAGUN, Eleka Ingeniaritza Linguistikoak garatutako aplikazio informatiko bat da. Euskaraz lan egiteko erabilgarriak diren hainbat hizkuntza-baliabide batzen ditu eta euskaraz idatzi behar duten pertsonen laguntzeko tresna moduan eskaintzen da. Mikroenpresei, enpresa txikiei, ertainei, administrazio publikoei edota freelance moduan ari diren profesionalen zuzenduta dago sortzen zaizkien hizkuntza-zalantzak argitzeko. Oso erabilera errazekoa da eta baliabideak eskuera-eskura daude ([www.idazlagun.eu](http://www.idazlagun.eu)).
- Aplikazioa ikusteko sakatu [hemen](#)

## U da barnetegiak: euskara ikasteko aukera paregabea

- Uztailean ez duzula denborarik izan? Abuztuan ere baduzu aukera. Euskaltegi ugari eskaintzen dute: AEK-k, Zornotzako Barnetegiak, Bilbo Zaharrak, Gabriel Arestik, IKAK, Maizpidek eta Ulibarrik. Animatu eta ikasi edota hobetu zure euskara!
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Asigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdiain eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)

[www.aek.org](http://www.aek.org)